


## ARIKETAK

### 1 HIZTEGI BATUA

1. a) **Argitarapen** berriak aurkeztu dituzte liburu azokan.  
b) **Argitalpen** berriak aurkeztu dituzte liburu azokan.
2. a) Pizza bat egiten saiatu nintzen behin, baina orea **sapaian** itsatsita gelditu zen.  
b) Pizza bat egiten saiatu nintzen behin, baina orea **sabaian** itsatsita gelditu zen.
3. a) Nahiago dut oilaskoa eskuekin jan, **sardexkarekin** baino.  
b) Nahiago dut oilaskoa eskuekin jan, **sardeskarekin** baino.
4. a) Sardina baino handiagoa da **sardinzarra**.  
b) Sardina baino handiagoa da **sardinzaharra**.
5. a) Lepotik heldu zion eta bizkarretik sartu egin zion **sastagaia**.  
b) Lepotik heldu zion eta bizkarretik sartu egin zion **sastakaia**.
6. a) Mick Jagger kantariak ez omen zuen **satisfakziorik** lortzen.  
b) Mick Jagger kantariak ez omen zuen **satisfaziorik** lortzen.
7. a) **Eskaner** bat merke-merkea erosi du, baina argazkiak zuri-beltz ateratzen omen ditu.  
b) **Scanner** bat merke-merkea erosi du, baina argazkiak zuri-beltz ateratzen omen ditu.
8. a) **Scout** baten moduan ibiltzen da lñaki mendian, baina, badaezpada, ez hari galdetu lparra non dagoen.  
b) **Eskaut** baten moduan ibiltzen da lñaki mendian, baina, badaezpada, ez hari galdetu lparra non dagoen.
9. a) **Minuto** bat eta hirurogei **segundo** gauza bera dira.  
b) **Minuto** bat eta hirurogei **segundu** gauza bera dira.  
c) **Minutu** bat eta hirurogei **segundu** gauza bera dira.  
d) **Minutu** bat eta hirurogei **segundo** gauza bera dira.
10. a) Ez dut horrelakorik **sekula** ikusi.  
b) Ez dut horrelakorik **sekulan** ikusi.
11. a) **Diputaduak** eta **senadoreak** hautatu dira azken hauteskundeetan.  
b) **Diputaduak** eta **senatariak** hautatu dira azken hauteskundeetan.  
c) **Diputatuak** eta **senadoreak** hautatu dira azken hauteskundeetan.  
d) **Diputatuak** eta **senatariak** hautatu dira azken hauteskundeetan.
12. a) Giltza **sarrailan** sartuta utzi zuen eta ezin etxera sartu.  
b) Giltza **serrailan** sartuta utzi zuen eta ezin etxera sartu.  
c) Giltza **zarrailan** sartuta utzi zuen eta ezin etxera sartu.  
d) Giltza **zerrailan** sartuta utzi zuen eta ezin etxera sartu.
13. a) Gezurtiak zer du merezi? Egia esatean, ez **sinetsi**.  
b) Gezurtiak zer merezi du? Egia esatean, ez **sinistu**.
14. a) Hauteskundeetan ez dut aparteko **esloganik** entzun.  
b) Hauteskundeetan ez dut aparteko **lemarik** entzun.  
c) Hauteskundeetan ez dut aparteko **sloganik** entzun.
15. a) **Esmokin** bat erosi zuen ezkontzarako.  
b) **Smoking** bat erosi zuen ezkontzarako.
16. a) Hamaika gose eta gale **sofritu** ditu.  
b) Hamaika gose eta gale **sufritu** ditu.
17. a) **Ezpatadantzaren** ondoren, **sokadantza** egin zuten dantzariak, elkarri eskutik helduta.  
b) **Ezpatadantzaren** ondoren, **soka-dantza** egin zuten dantzariak, elkarri eskutik helduta.  
c) **Ezpata-dantzaren** ondoren, **sokadantza** egin zuten dantzariak, elkarri eskutik helduta.  
d) **Ezpata-dantzaren** ondoren, **soka-dantza** egin zuten dantzariak, elkarri eskutik helduta.
18. a) Gaurko **sokamuturrean** bost zauritu izan dira.  
b) Gaurko **soka-muturrean** bost zauritu izan dira.

# A R I K E T A K

19. a) **Sokatiran** bezala atera behar dizkiogu iritziak horri.  
b) **Soka-tiran** bezala atera behar dizkiogu iritziak horri.
20. a) Ura, izoztean, **solido** bihurtzen da.  
b) Ura, izoztean, **solidu** bihurtzen da.
21. a) **Azpizuna** da abereen bizkarreko haragi zerrenda goxo-goxoa.  
b) **Solomiloa** da abereen bizkarreko haragi zerrenda goxo-goxoa.  
c) **Solomilloa** da abereen bizkarreko haragi zerrenda goxo-goxoa.
22. a) Bileran lana egiteko prest geundela esan eta berehala **sumatu** nuen lankideon gorrotoa.  
b) Bileran lana egiteko prest geundela esan eta berehala **somatu** nuen lankideon gorrotoa.
23. a) Ez baduzue giro onik sortzen, **sorrarazi** egingo dizuet, kontxo!  
b) Ez baduzue giro onik sortzen, **sortarazi** egingo dizuet, kontxo!
24. a) Nik ez nuen esaldi hori gutunean sartu nahi, baina nagusiak **sartarazi** egin zidan.  
b) Nik ez nuen esaldi hori gutunean sartu nahi, baina nagusiak **sarrarazi** egin zidan.
25. a) **Subiranotasuna** non datza? Hortxe dago gakoal!  
b) **Soberanotasuna** non datza? Hortxe dago gakoal!
26. a) Lanean giro txarra dute, eta horrek **stress** ikaragarria sortu dio.  
b) Lanean giro txarra dute, eta horrek **estres** ikaragarria sortu dio.
27. a) *Etxe* **substantibo** da; *etorri*, *ordea*, *aditz*.  
b) *Etxe* **sustantibo** da; *etorri*, *ordea*, *aditz*.
28. a) Oso hozbera denez, **su-hiltzaile** izan nahi du.  
b) Oso hozbera denez, **su hiltzaile** izan nahi du.  
c) Oso hozbera denez, **suhiltzaile** izan nahi du.
29. a) Hori harrotuta ibiltzen da beti, ez dena badela **sinestarazi** nahian.  
b) Hori harrotuta ibiltzen da beti, ez dena badela **sinetsarazi** nahian.
30. a) Zein da zure txistuaren tonalitatea: Sol, Fa ala Fa **sostenidua**?  
b) Zein da zure txistuaren tonalitatea: Sol, Fa ala Fa **sostenitua**?  
c) Zein da zure txistuaren tonalitatea: Sol, Fa ala Fa **diesea**?
31. a) Neurri **standard** batean egiten dute gogoko duzun soinekoa; beharbada, txikiegia izango duzu.  
b) Neurri **estandar** batean egiten dute gogoko duzun soinekoa; beharbada, txikiegia izango duzu.
32. a) Bihotza **gartsu**, burua hotz.  
b) Bihotza **kartsu**, burua hotz.



## 2 GRAMATIKA ARIKETAK

Gramatika atalean "Oposizioak datozenaren zurrumurru okerra" artikulua dago. Bertan azaldutakoa lantzeko prestatu ditugu ondoko ariketak.

### Zuzendu hurrengo esaldiak

1. Lanpostua amortizatuko didatenaren beldur naiz.

---



---

2. Ander haserretu delaren susmoa dut.

---



---

3. Berrito adiskidefuko zaretelazko zurrumurrua entzun dut, baina antza denez, ez da egia.

---



---

4. Zuk ere sinetsi al zenuen dirulaguntza emango ziguteneko kontu hura?

---



---

### Esaldiak berridatzi

Adibidean bezala jokatu eta berridatzi ondorengo esaldiak.

1. Zurrumurru bat zabaldu da: zerbitzuburu izendatu egingo omen naute. Ez da egia.

*Zerbitzuburu izendatuko nauten/nautelako zurrumurrua ez da egia.*

2. Susmo bat dugu: ez dute gure eskaria onartu. Gero eta handiagoa da susmoa.

\_\_\_\_\_ **susmoa gero eta handiagoa da.**

3. Esperantza bat du gobernuak: Inflazioari eutsiko dio.

\_\_\_\_\_ **esperantza du gobernuak.**

4. Aitzakia bat badute: aurrekontua murriztu egin da. Horregatik ez digute soldata igo.

\_\_\_\_\_ **aitzakiaz ballatu dira soldata ez igotzeko.**

5. Egunkariak argitaratu dute berria: alderdi guztiak izenpetu dute hitzarmena.

\_\_\_\_\_ **berria argitaratu dute egunkariak.**

# SOLUZIOAK

## 1 HIZTEGI BATUA

- |                 |          |       |
|-----------------|----------|-------|
| 1. b            | 15. a, b | 29. b |
| 2. b            | 16. b    | 30. c |
| 3. a            | 17. c    | 31. b |
| 4. a            | 18. a    | 32. b |
| 5. b            | 19. a    |       |
| 6. b            | 20. a    |       |
| 7. a            | 21. a    |       |
| 8. b            | 22. a    |       |
| 9. d            | 23. a    |       |
| 10. a           | 24. b    |       |
| 11. d           | 25. a    |       |
| 12. a           | 26. b    |       |
| 13. a (hobe), b | 27. a    |       |
| 14. a, c        | 28. c    |       |

## 2 GRAMATIKA ATALA

### *Zuzendu hurrengo esaldiak*

- Lanpostua amortizatuko didatelako beldur naiz.  
Lanpostua amortizatuko didaten beldur naiz.
- Ander haserretu delako susmoa dut.  
Ander haserretu den susmoa dut.
- Berriro adiskidetuko zaretelako zurrumurrua entzun dut, baina antza denez, ez da egia.  
Berriro adiskidetuko zareten zurrumurrua entzun dut, baina antza denez, ez da egia.
- Zuk ere sinetsi al zenuen dirulaguntza emango zigutelako kontu hura?  
Zuk ere sinetsi al zenuen dirulaguntza emango ziguten kontu hura?

### *Esaldiak berridatzi*

- Gure eskaria onartuko ez duten susmoa gero eta handiagoa da.
- Inflazioari eutsiko dion esperantza du gobernua.
- Aurrekontua murriztu delako aitzakiaz baliatu dira soldata ez igotzeko.
- Alderdi guztiek hitzarmena izenpetu dutelako berria argitaratu dute egunkariek.